

ARANZADIKO ERAZTUNTZE BULEGOKO DOKUMENTUAK

HEGAZTI HABIAGILEAK MONITORIZATZEKO ERAZTUNKETA-GUNEAK (EMAN)

Bertsioa: 2016ko ekaina.

Dokumentu hau honela aipatu:

Aranzadiko Erantzuntze Bulegoa, 2016. Hegazti habiagileak monitorizatzeko eraztunketa-guneak, 2016ko ekaineko bertsioa. Aranzadi Zientzia Elkarte. Donostia.

LAGINKETA GUNE IRAUNKORRAK (LGI)

Laginketa gune iraunkorretan, hegazti populazioak sistematikoki monitorizatzeko helburuz, aldizka eta era araupetuan egiten da lan. Eratzunketa ugaltze-egitasmoen bidez, LGI-etan lortutako datuek hegazti habiagileen populazioen ezaugarriak balioztatzen dituzte. Honek, populazio hauen hazkunde-joera eta ugaltze-arrakasta neurtzerakoan balio handia dauka. Gainera, LGI-etan lortutako datuak ikertutako populazioen kontserbazio egoerari loturiko adierazleak dira.

LGI-ak Erresuma Batuan, hegazti habiagile populazioak (paseriformeak nagusiki) modu sistematikoan monitorizatzeko sortu ziren. Espainian, hamar urte baino gehiago daramatzate Espainiako Ornitologia Elkarteak (SEO/BirdLife) PASER programa eta Kataluniako Ornitologia Institutuak (ICO) SYLVIA programa sustatzen; hauek, Erresuma Batuan duela hamarkada asko habian den LGI programaren parekoak dira. Hala ere, programa hau Aranzadi Eratzuntze Bulegoko eratzunle askorentzat ezezaguna da.

EMAN programaren (Hegazti Habiagileen Monitorizaziorako Eratzunketa-guneak) helburua, Aranzadiko Eratzuntze Bulegoko eratzunleek lan egiten duten lurraldeetan hegazti habiagile arrunten populazioen jarraipen eta monitorizaziorako programa hastea eta honenbestez, Aranzadiko Eratzunketa Bulegoko eratzunleek mantendutako LGI sarea sortzea da.

Programa honetako prozedurak gainera, SEO/BirdLife-ren PASER programaren metodologiarekin bat egiteko aukera ematen du, lortutako datuak bateragarriak izan daitezen baimenduz.

EMAN PROGRAMAREN HELBURUA

Joerak aztertze asmoz, epe luzera espezie habiagile arruntenean populazio-parametro nagusiak ezagutzea da programa honen helburua. Batez ere, paseriformeak eta haiengandik gertu dauden edo paseriformeen antzeko tamaina duten talde taxonomikoak ikasten dira.

Parametroak honako hauek dira:

- Populazio habiagilearen tamaina.
- Emankortasuna.
- Biziraupena.

IKERKETA EREMUA

Aranzadiko erantzunleek beren jarduera garatzen duten edozein leku, Espainia barruan.

KOKAPENA

EMAN programaren helburua, hegazti habiagileen populazioak ondo mugatutako ekosistema egonkorretan monitorizatzea da. Beraz:

- Proiektua denboraldi baterako denez, epe luzean, aukeratzen diren habitatak denboraren zehar egonkorrak izan behar dira, hau da, epe luzean bai natura bai giza-arrazoiak direla eta aldatuko ez direla baieztatu behar da. Hortaz, garatzen ari diren ekosistemak, adib., heldutasunik gabeko basoak edo trantsizio ekosistemak, ez dira onargarriak ikerketa honetarako.
- Bestalde, habitat homogeenok aukeratzen saiatu behar da.
- Lehentasunezko habitatak: lezkadiak, erreketan haltzadiak eta ibaiertzetako basoak, hariztiak, pagadiak, bertako pinudi eta izeidiak, bertako heskaiak, landak.

Laginketa gunea aukeratu ondoren, eta erantzunleak eskatuz gero, Aranzadiko Erantzuntze Bulegoko aditu-batzorde bat lekuak EMAN proiekturako daukan kalitatea eta egokitasuna aztertzeko bertaratu daiteke. Batzorde hau, sareak ezartzeko gunea aukeratzeko,... gomendioak erantzunleari emateko prest egongo da.

IKERKETA GARAIA

EMAN programa, derrigorrez, maiatzaren 1 eta abuztuaren 15aren artean gauzatuko da. Urtero 7 laginketa-jardunaldi egingo dira (ugal-garaian). Hamabostaldian behin laginduko da, nahi denean baina elkarren segidako bi laginketaren artean 6 eguneko gutxieneko epea errespetatuz. Hau da, denbora-tarte bakoitzean laginketa bat egin beharko da: 05.01-05.15ean, 05.16-05.31n, 06.01-06.15ean, 06.16-06.30ean, 07.01-07.15ean, 07.16-07.31n, 08.01-08.15ean.

EMAN programa a 2010 urtean jarri zen habian baina programa hasita egon arren, edozein momentutan gune berriak atxiki daitezke.

LAGINKETA METODOLOGIA

Laginketarako 16 mm-ko tartea eta 2.5 m ko garaiera duten sareak erabiliko dira. Sareen luzera, tokiaren eta komenigarritasunaren arabera izanen da. Gutxienez 12 metroko luzeradun 10 sare erabiltzea aholkatzen da. Sare kopurua kontrolagarria izan beharko da eta kokapenak laginketa gunean aurki daitezkeen hegazti gehienak harrapatzea izan behar du helburu.

Gainera, baso-ekosistemetan, basoko maila garaienetan bizi diren espezie eta norbanakoen laginketa burutzeko asmoz, sare garaiak jarriko dira.

Amuen erabilera galarazita dago, bai biziak, zein tresnerian bitartezkoak, beraien eragina datuetan kontutan izanik (erreklamoaren erakargarritasuna ezberdina da sexua edo adinaren arabera, edo hegaztiaren egoera fisikoa, eguraldia, eta abarren arabera). Gainera, eta ahal den neurrian, hegazti asko bateratzen dituzten behin-behineko ur-eremuen ondoan (iturriak, potxingoak,...), sareak jartzea eragotzi egingo da.

Laginketak egunsentitik kontaktzen hasita sei ordu iraungo du eta sareetatik ordu erdiro edo, gehienez, orduro igarotzea aholkatzen da. Laginketa gunea egunsentirako prest egon behar da (sareak zabalik egunsentia baino lehen).

Ale bakoitzari adina (EURING kodea) eta sexua zehaztuko zaizkio eta hegoa, P3a eta tartsoa neurtzeaz gain, pisua, gantza eta giharra ere neurtuko dira. Honez gain, hegaztia mudan dagoen ala ez eta, heldua bada, txitaldi plaka edo kloaka protuberantzia daukan ere jasoko dira. Berreskurapenen kasuan, adina, pisua, gantza eta giharren, mudaren egoeraren, txitaldi plaka eta protuberantzia kloakalaren agerpenaren inguruko oharrak hartuko dira.

- Adina: 3J (gaztaroko lumajea daukan alea, gaztaro osteko mudarekin hasi ez dena), 3 (gaztaro osteko lumajea duen artean edo eduki ostean hartutako alea, bere bizitzako lehen urtean), 4, 5, 6 eta 2 (EURINGen gisara).
- Plaka: 0 (plakarik ez), 1 (sabelaldeko lumen gabezia, azal leuna, kolorazio gorrixka), 2 (zimur lodiak, azalaren azpian fluidorik ez, kolorazio arrosa zurbila), 3 (garapen maximoa: zimur lodiak, azalaren azpian likido kantitate handia, “anpulu” modukoa, kolorazio arrosa), 4 (zimur ez horren lodiak, azalaren azpian fluidorik ez, azal lehorra), 5 (sabelaldean lumen hazkundera), 6 (arrautzak dituen emea: haurdun dagoena), 7

(protuberantzia kloakala duen arra), 8 (7aren gisara eta txitaldi plaka sotilarekin), 9 (ezezaguna).

Hazte prozesuan dirauten eta habiatik salto egin berri duten gaztaroko lumajedun txitak harrapatu diren leku berean askatuko dira, une horretan beren gurasoekiko dependentzia erabatekoa baita oraindik.

Honez gain, ale bakoitza ze sare-lerrotan harrapatu den idatziko da.

LAGINKETARI ESKAINITAKO ESFORTZUA

Behin eraztuntze gunea zein izango den erabakita dagoela, sare kopurua eta kokapena beti berdina izango da, EMAN egitarauak dirauen bitartean, behinik behin. Horregatik, sareen kokapena EMAN programa hasi baino lehen balioztatu beharko da, programa hasi ostean ezin izango baita kokapenik aldatu.

INFORMAZIOAREN ARGITARAPENA

EMAN programari lotuta dauden Laginketa Gune Iraunkorretan (LGI) lortutako informazio guztia, aldizka argitaratuko da. Datuen aztertze lanak eta bi urteko txostenaren erredakzioa, horren baitan izendatutako koordinazio batzordearen ardura eta erantzukizuna izango dira. Txosten horretan, LGI bakoitzaren arduradun eta parte hartzaileen zerrenda ere agertuko dira. Bi urteko txosten horren menpekotasunik izan gabe, LGI bakoitzak datu horiek edozein momentutan argitara ditzake, nahi izanez gero.

Horretarako, LGI bakoitzaren arduradunek, datu basea urtero Eraztuntze Bulegoko Idazkaritzara bidali beharko dute. Datu base hori, EMAN egitarauak agintzen duen formatuan bidali beharko da eta aldi berean Eraztuntze Bulegoko Idazkaritzak ezartzen dituen epeak errespetatuko dira.

HELBIDEA ETA KONTAKTUA

EMAN programaren baitan LGI bat ezarri nahi duen oro, Aranzadi Erantzuntze Bulegoko Idazkaritzarekin harremanetan jar daiteke, bai bere posta helbidea erabiliz (ring@aranzadi.eus) edota ondorengo telefonoetara hots eginez, (616268114 edo 618277227).